



MERKATUAREN SEGMENTAZIO

Gure enpresak sortutako irteerak **edozein pertsonari zuzendatuak** daude, ez dago zehazki profil nagusi bat. Nahi duten guztiak ongi etorriak dira gure zerbitzuez gozatzeko.

Irati Basoan antolatutako txangoak egiteko taldeak osatuko dira. Talde hauek, bakoitzaren **ezaugarri eta interesen arabera** adostuko dira, eta honekin jarraituz honako talde motak egin ahalko dira: haurrak dituzten familiak, haurrik gabeko familiak, eskolatik datozen haur-taldeak, gazteen taldeak, adinekoen taldeak, guztiak nahastuta dauden taldeak...

Gu ezberdintzen gaituen alderdietako bat, **profesionalen** laguntzaz antolatutako ibilbideak eskeintzen ditugula da. Bidean laguntza hau izatea aberasgarria ikusten dugu, gozatzeaz gain **ikasteko** aukera bermatzen dugulako, modu ludiko batean.

Laburbilduz, gure enpresa proiektuaren **xede publikoa** zabala eta anitza dela esan dezakegu, betiere naturaz gozatzeko prest egongo dena.